Lege agindua era eraginkorrean betetzeko, Araudi Plan hau, Bermeoko Udalaren web guneko Gardentasun-atarian iragarriko da eta, aurreko atalean adierazo legez, leku berean argitaratuko dira Plan hau onartu eta gero sortu leikezan beharrian eta ekimen barriak.

3.- Parte hartzea:

Erregelamendu eta Ordenantzak proposatzeko herritarrek daukeezan eskubideez gain, eta Arau zehatz bat behin-betiko aldatu, moldatu edo onartu orduko lege aginduz bete beharreko entzunaldian alegazioak aurkezteko aukeraz gain, Araudi Plan hau onartu eta iragartzen dan unetik aurrera, Araudi Planean aurreikusitako arauen ganeko proposamenak, iradokizunak, eskariak, etab. aurkeztu ahal izango dabez interesdunek, arau zehatzen erredakzio barria egiterakoan aztertuak izango diranak.

Aurreko paragrafoan aitaturako parte hartze aukera, araudi proiektu edo erredakzioa idatzi baino lehenago egin beharreko alde aurretiko kontsulta publikoa zabaltu arte erabili ahal izango da.



Aldez aurretiko kontsulta publikorik egin behar ez dan kasuetan, araudi proiektu edo erredakzinoa egin arte egongo da parte hartze aukera hau erabiltzeko ahalmena.

Aurkeztutako proposamen, iradokizun, eskariak, etab. erredakzino barrian jasoko ez balira, horren zergaiti zehatza emongo litzakie proposatzaileeri, baina beti be, kontutan eukita, parte hartzea bermatzea behar-beharrezkoa bada be, parte hartze horretako emaitza ez dala loteslea eta ezin dauzala interes orokorra eta erakundearen arautze ahalmena mugatu.

Behin aldez aurretiko kontsulta publikoaren epea zabaldua, Bermeoko udal-araudiak eta ordenantzak sortzeko prozeduran aldez aurretiko kontsulta publikoa, entzunaldia eta informazino publikoari buruzko gidalerroen arabera aurkeztuko dira proposamenak, iradokizunak, eskariak, etab. Eta hori guztia, onarpen prozedurearen barnean aurreikusten dan entzunaldi epean aurkeztu leikezanen kalte barik.

4.- 2025. urtean aldatu edo moldatu gura diran Arauen zerrenda:

Bermeoko Udalak onartuta daukazan Arauen artetik, honeek aldatu gura dira urte honetan zehar:

1. Bermeoko hiriko oinezkoen gunea antolatzeako ordenantza

Xedea: Udaleko alde zaharreko gunean ibilgailuen kudeaketa xedatzea.

Sail arduraduna: Udaltzaingoa eta Berrikuntza Saila

Egin gura dan jarduna: Baimen moten azterketa, lokal hutsen jabeai sartzeko aukera emateko, negozioak dituzten enpresaburuei baimen kopurua handitzeko eta xedatu gabe dauden etxebizitza turistikoak arautzeko.

Arrazoa: Alde zaharrean lan egiten duten eragileei sarbidea erraztu eta etxebizitza turistikoak arautzeko

2. Kirol instalazino eta gainerako zerbitzuak erabili ahal izateko eskubideak, betebeharrak eta baldintzak arautzen dauan arautegia:

Xedea: Udalaren Kirol instalazinoak eta gainerako zerbitzuak erabili ahal izateko eskubideak, betebeharrak eta baldintzak arautzea."

Sail arduraduna: Kirol Saila

Egin gura dan jarduna: Aldatu, legera egokitze.

Arrazoa: Eguneraketa egitea, 2/2023 kirol legearen xedapenek ezarritakoaren arabera.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012101500COP3T6S3G3L8

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udal)-IDAZKARI NAGUSIA - 06/02/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/02/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 06/02/2025 18:09:10

DOCUMENTO: 20251183765
Data: 06/02/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidade: Erregistro nagusia



3. Bidaiaariak Automobil Arinetan Garraiatzeko Zerbitzuari buruzko Udal Araudia:

Xedea: Udalerrian bidaiaariak automobil arinetan (taxiak) garraiatzeko zerbitzua arautzen dau.

Sail arduraduna: Zerbitzu Saila.

Egin gura dan jarduna: Auto-taxien jardura arautzen duen ordenantza zuzentzea eta eguneratzea.

Arrazoa: Akatsen bat zuzendu beharra dago, azken urteotan agertu diran bestelako zerbitzuak/erabilerak arautu eta 4/2019 Legera egokitzea.

4. Bermeon animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen ordenantza:

Xedea: Bermeon leudekeen animaliak babestu, eduki eta saltzeko arauak ezartzea.

Sail arduraduna: Zerbitzu Saila.

Egin gura dan jarduna: Bermeon animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen ordenantza eguneratzea.

Arrazoa: Ordenantza eguneratu behar da 44/2020 DEKRETUari, martxoaren 24koa, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzko Dekretua aldatzen duenari egokitu eta 9/2022 Legera egokitzeko. Halaber, Animalien eskubidea eta ongizatea babesteko martxoaren 28ko 7/2023 Legera ere egokitu beharra dago.

5. Terrazak espazio publikoetan jartzeari buruzko udal ordenantza:

Xedea: Terrazak espazio publikoetan jartzeari buruzko arauak ezartzea.

Sail arduraduna: Urigintza, Obra eta Ingurumen Saila.

Egin gura dan jarduna: Espazio publikoaren kudeaketa egokia.

Arrazoa: Azken urteetan espazio publikoan ipinitako terraza kopuarua nabari ugaritu da. Terraza horreek modu ordenatuan ipintea bermatzeko ordenantza berrikustea beharrezkoa da.

6. Udaltzaingoaren barne Araudia:

Xedea: Bermeoko udalerriko Udaltzaingoaren funtzionamendua, antolakuntzea, egiturea eta Araudi honetan aitaturako gainontzeko alderdiak egokitzeko arauak ezartea

Sail arduraduna: Udaltzaingoa



Egin gura dan jarduna: Adinaren arabera egokitutako zerbitzua arautzea

Arrazoa: Zahartu ahala polizia baten funtzioak modulatzeko, segurtasun eta eraginkortasun operatiboko kontua izateaz gain, zerbitzuan emandako urteetan metatutako esperientziaren eta ezagutzaren aintzatespena eta balioespena ere bada. Aldaketa honekin, 60 urtetik gorako udaltzainei euren adinera eta gaitasunera egokitutako lanak burutzeko aukera ematen da.

7. Bermeoko Udaleko lan poltsak kudeatzeko araudia

Xedea: Bermeoko Udaleko lan poltsak kudeatzeko irizpideak ezartzea.

Sail arduraduna: Langileria Saila

Egin gura dan jarduna: Bermeoko Udaleko lan poltsak kudeatzeko araudia berraztertu eta eguneratu.

Arrazoa: Ezinbestekoa da Bermeoko Udaleko lan poltsak kudeatzeko irizpideak egungo beharrianetara egokitzea.

8. Bermeoko Udal Azokako Ordenantza:

Xedea: Udal azokaren erabilera eta kudeaketa arautzen dau.

Sail arduraduna: Behargintza Saila.

Egin gura dan jarduna: Postuen emakidei buruzko arauak gaur egungo beharrianetara egokitu.

Arrazoa: Gaur egun araututa dagoen moduan ez diranez postuen esleipenak eta ustiapena bermatzen, gaur egungo beharrianetara egokitu beharra dago.

9. Musika eskolako barne arautegia

Xedea: Musika eskolako barne arautegia berriztu.

Sail arduraduna: Hezkuntza saila

Egin gura dan jarduna: gaur egungo beharrianetara egokitu

Arrazoa: Zaharkituta dago eta eguneratu beharra dago.

10. Bizikidetza Ordenantza:

Xedea: espazio publikoa topagune eta bizikidetzarako leku gisa zaintzea

Sail arduraduna: Udaltzaingoa



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012101500C0P3T6S3G3L8

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udal)-IDAZKARI NAGUSIA - 06/02/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/02/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 06/02/2025 18:09:10

DOCUMENTO: 20251183765
Data: 06/02/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Egin gura dan jarduna: araudiaren eguneraketa, ikusi diren beharrianak asetzeari

Arrazoiak: herrian ematen diren hainbat arazoei konponbide bat eman ahal izateko ordenantza eguneratu beharra dago.

5.- 2025. urtean onartu gura diran Arau barrien zerrenda:

Bermeoko Udalak Arau barri honeek izapidetu eta onartu gura dauz urte honetan zehar:

1. Bermeoko Udal antolaketa eta funtzionamendurako Araudia

Xedea: Udala antolatu eta funtzionamendua arautu.

Sail arduraduna: Idazkaritza Saila.

Egin gura dan jarduna: Onartu

Arrazoiak: Ez dago eta beharrezkoa da udala ondo antolatua egon daiten eta funtzionatzeko era zein izango dan jasota egon daian.

2. Administrazio Elektronikoa Bermeoko Udalean:

Xedea: Azken urteetako eraldaketa prozesu guztia xedatzea, udal barnean espediente guztiak elektronikoki burutu eta pertsona juridiko zein fisikoekin hartu eman guztia modu elektronikoa berme juridiko guztiekin burutu dadin.

Sail arduraduna: Berrikuntza, Gobernu Irekia eta Herritarren Arreta Saila

Egin gura dan jarduna: Onartu.

Arrazoiak: Ez dagoelako erregelamendurik eta xedatu beharra dagoelako.

3. Partaidetza:

Xedea: Udalak egiten dituen prozesu partehartzaileak xedatu eta lankidetzaren dinamikak udal jardunean txertatzeko modua ezarrita uzteko.

Sail arduraduna: ATB Saila

Egin gura dan jarduna: Onartu.

Arrazoiak: Ez dagoelako Araudirik eta funtzionamendu bateratua eta sistematikoa bilatzen delako.

4. Bermeoko udalerriko hondartza eta itsas-kaleen erabilerari buruzko ordenantza:

Xedea: Aritzatxu hondartzaren eta herriko kaleen erabilera arautzeko.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012101500C0P3T6S3G3L8

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udalak)-IDAZKARI NAGUSIA - 06/02/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/02/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 06/02/2025 18:09:10

DOCUMENTO: 20251183765

Fecha: 06/02/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Sail arduraduna: Zerbitzu Saila.

Egin gura dan jarduna: Onartu.

Arrazoa: Inguru natural horien erabilera arautu beharra: txakurrak, kanpaldiak, motorren erabilera...).

5. Bermeoko higiezin eta kultur ekipamenduen erabilera eta funtzionamendua arautzeko ordenantza

Xedea: Aitatutako lokalen erabilera eta kudeaketa arautzeko.

Sail arduraduna: Kultura eta Hezkuntza Saila.

Egin gura dan jarduna: Onartu.

Arrazoa: Ez dagoelako erregelamendurik eta arautu beharra dago.

6. Bermeoko Udal Artxiboko Araudia

Xedea: Udal Artxiboa antolatu eta funtzionamendua arautu.

Sail arduraduna: Kultura eta Hezkuntza Saila.

Egin gura dan jarduna: Onartu

Arrazoa: Ez dago eta beharrezkoa da udala ondo antolatua egon daiten eta funtzionatzeko era zein izango dan jasota egon daian.

7. Apartamentu turistikoaren inguruko Ordenantza:

Xedea: Apartamentu turistikoei buruzko arauak ezartzea.

Sail arduraduna: Urigintza, Obra eta Ingurumen Saila.

Egin gura dan jarduna: Apartamentu turistikoen kudeaketa egokia.

Arrazoa: Azken urtean Bermeon dagozan apartamentu turistikoak asko ugaritu dira, batez ere alde zaharrean. Jarduera barri hau arautzea beharrezkoa da.

6.- 2026. urterako Ordenantza fiskalak:

Ordenantza fiskalak urtero errebisatzen dira eta, ondorioz, 2025. urtean be, 2026. urterako errebisatzeko aurreikuspena dago.

7.- Bestelako ekimenak:



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012101500COP3T6S3G3L8

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udal)-IDAZKARI NAGUSIA - 06/02/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/02/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 06/02/2025 18:09:10

DOCUMENTO: 20251183765
Data: 06/02/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Aurretik adierazotako ekimenetatik kanpo, udal talde politikoek eta negoziatzino mahaiak daukeen proposatze ahalmenetatik sortu leikezanak be bideratuko dira 2025. urtean, horrelakorik balego.

Eta bardin egon leikezan prozedura judizial edo epaien ondorioz, edota legedi aldaketan ondorioz, araudi zehatz bat aldatu, moldatu edo onartzeko betebeharra sortuko balitz.

Kasu honeetan, eta arintasuna bermatze aldera, Araudi Plan honen aldaketak egiteko ahalmena Alkatetzarengan delegatzen da.

8.- 2024. URTEKO INBENTARIOKO ZUZENKETA ONARTZEA.

<http://bideoakta.bermeokoudala.eus/bermeo/visor.aspx?id=2&t=3677>

Xedea

2024. urteko inbentarioko zuzenketa onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2024ko abenduaren 23ko Alkatetza Probidentziaren bidez erabaki da espedientea irekitzea, 2024 ekitaldiko ondasun eta eskubideen inbentarioaren zuzenketa onesteko.

Bigarrena: Egun berean, Idazkaritza Sailak Ondasunen Inbentario Orokorra zuzentzeko espedientea sortu du, 2024. urtean izandako alta, baja eta aldaketekin, eta Idazkaritzako AOTak txosten juridikoa eman du.

Argudioak

Lehenengoa: Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 32. artikulua dio administrazio publikoek beren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideen inbentarioa izan behar dutela.

Toki esparruan, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 86. artikulua, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden Lege Xedapenen Testu Bategina onartzen duenak, eta Toki Entitateen Ondasunen Erregelamenduko 17. artikulua, toki entitateek beren ondasun eta eskubide guztien inbentario baloratua egiteko betebeharra ere jasotzen dute.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012101500C0P3T6S3G3L8

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 06/02/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/02/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 06/02/2025 18:09:10

DOCUMENTO: 20251183765
Data: 06/02/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidada: Erregistro nagusia



Bigarren: Halaber, ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 33.1 artikulua ezartzen duenez, udal inbentarioaren zuzenketa urtero egingo da, eta bertan jasoko dira epe horretan udalaren jabetzako ondasun eta eskubideen gorabehera guztiak. Horren ondorioz, ondasun horien eskurapenak, salmentak, trukeak, zortasunak, kalifikazio juridikoen aldaketak eta inbentarioaren xede diren ondasun eta eskubideetan eragina duen beste edozein ekintza adieraziko dira.

Hirugarrena: Gaikuntza Nazionala duten Toki Administrazioen Funtzionarioen Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.2.k artikulua idazkaritza funtzio publikoaren barruan sartzen du ondasunen inbentarioa eramatea. Horrekin bat etorriz, 1372/1986 Errege Dekretuaren 32. artikulua "*eramatearen*" funtzioa osatzen du, inbentarioa udaleko idazkariak baimenduko duela esanez, alkatearen oniritziarekin. Inbentario bereizien kasuen (erakunde autonomoak, sozietate publikoak eta lurzoruen udal ondarea), idazkariaren sinadura dagokion erakundeko zuzendari edo administratzailearena baino lehen joan beharko da.

Laugarrena: Bestalde, Toki Erakundearen Ondasunen Erregelamenduaren 32.1 artikulua arabera, inbentarioaren urteko zuzenketa onartu ondoren, inbentarioaren kopia bidaliko zaio Estatuko eta Autonomia Erkidegoko administrazioei.

Bosgarrena: Urteko inbentarioa zuzentzeko eskumenari dagokionez, Toki Erakundearen Ondasunen Erregelamenduaren 34. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Osoko Bilkura da organo eskuduna.

Erabakia

Udal Osoko Bilkurak, aho batez, honakoa erabaki du:

LEHENENGOA: 2024. urtean ondasunen inbentarioetan, Bermeoko Udaleko, Berualako eta Udal lurzoru ondarean egondako aldaketak onartzea, hurrengo tauletako balioekin:

BERMEOKO UDALA

AURREKO BALORAZINOA	2024 ALTAK	2024 BAJAK	2024 AMORTIZAZINOA	AZKEN BALORAZINOA
------------------------	------------	------------	-----------------------	----------------------



128.128.055,42 €	5.153.621,03 €	18.174.269,94 €	1.699.770,30 €	113.407.636,21 €
-------------------------	-------------------	--------------------	----------------	-------------------------

BERUALA

AURREKO BALORAZINOA	2024 ALTAK	2024 BAJAK	2024 AMORTIZAZINOA	AZKEN BALORAZINOA
3.275.994,08 €	0,00 €	1.449.814,28 €	46.927,57 €	1.779.252,23 €

UDAL LURZORU ONDAREA

AURREKO BALORAZINOA	2024 ALTAK	2024 BAJAK	2024 AMORTIZAZINOA	AZKEN BALORAZINOA
5.632.588,19 €	0,00 €	1.862.253,73 €	109.540,44 €	3.660.794,02 €

Hori horrela, erakunde guztiak kontuan hartuta honakoa da 2024 urteko balorazioa:

2023 URTEKO BALORAZINOA	2024 URTEKO ALTAK	2024 URTEKO BAJAK	2024 URTEKO AMORTIZAZINOA	2024 URTEKO BALORAZIOA
137.036.637,69 €	5.153.621,03 €	21.486.337,95 €	1.856.238,31 €	118.847.682,46 €



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012101500COP3T6S3G3L8

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 06/02/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/02/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 06/02/2025 18:09:10

DOCUMENTO: 20251183765

Data: 06/02/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E90012101500COP3T6S3G3L8



BIGARRENA: 2024. urteko zuzenketaren ondoriozko inbentario orokorraren zerrenda bat igortzea Estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioei, akordio honen ziurtagiriarekin batera.

HIRUGARRENA: Onartutako Ondasun eta Eskubideen Inbentarioa Udalaren gardentasun atarian argitaratzea, Gardentasunari, Informazio Publikoko Eskuragarritasunari eta Gobernu Onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.3 artikuluan eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 57.f) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri ematea Idazkaritza, Ekonomia eta Berrikuntza, Gobernu Irekia eta Herritarren Arreta sailei.

9.- ARATUSTEETAKO BERMEOKO TABERNEN MOZORRO TXAPELKETAREN OINARRI OROKORRAK ONARTZEA.

<http://bideoakta.bermeokoudala.eus/bermeo/visor.aspx?id=2&t=3863>

Xedea

Aratusteetako Bermeoko tabernen mozorro txapelketaren oinarri orokorrak onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Udaleko Mandatu planaren 2.4.1 helburu estrategikoaren 3. puntuan "Beherakada jasaten ari diren herriko jaietan talde eta komertzioekin lan egin jaiak bultzatzeko".

Bigarrena: 2025eko urtarrilaren 16an eta 21ean, Kultura teknikariak justifikazio txostenak egin ditu, Aratusteetako Bermeoko tabernen mozorro txapelketaren oinarrietan beharrezkoa den edukia dagoela adierazten.

Hirugarrena: Bermeoko tabernen mozorro txapelketan hiru sari emango dira, lehenengoa 200€-ko balioko otzara, bigarrena, 150€-ko balioko otzara eta hirugarrena, 100€-ko balioko otzara.



Laugarrena: 2025eko urtarrilaren 28an kontu hartzaileak fiskalizazio txostena egin du desadostasun oharrekin.

Argudioak

Lehenengoa: Gastuak, beharrezko atxikipena dauka (RC 2025/000020)

Bigarrena: Oinarri espezifikak onartzeko ahalmenari dagokionez, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 9.2, eta 17.2 artikuluen eta Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 22.2.e) artikuluekin bat, Osoko Bilkurari dagokio.

Erabakia

Udal Osoko Bilkurak, aho batez, honakoa erabaki du:

LEHENENGOA: Aratusteetako Bermeoko tabernen mozorro txapelketaren oinarri orokorrak onartzea.

BIGARRENA: Kultura eta Hezkuntza Sailari Aratusteetako Bermeoko tabernen mozorro txapelketaren oinarri orokorrak Bizkaiko Aldizkari Ofizialera bidaltzeko agindua ematea.

10.- DEMIKU AUZOKO TOSTADA TXAPELKETAREN OINARRIAK ONARTZEA.

<http://bideoakta.bermeokoudala.eus/bermeo/visor.aspx?id=2&t=3922>

Xedea

2025 urteko Demiku auzoko tostada txapelketaren oinarriak onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Udaleko Mandatu planaren 2.4.1 helburu estrategikoaren 3. puntuan “Beherakada jasaten ari diren herriko jaietan talde eta komertzioekin lan egin jaiak bultzatzeko”.

Bigarrena: 2025eko urtarrilaren 16an eta 21ean, Kultura teknikariak justifikazio txostenak egin ditu, 2025eko Demiku auzoko tostada txapelketaren oinarriak proposatzen.

Hirugarrena: 2025 urteko Demiku auzoko tostada txapelketaren sariak honako hauek dira: lehenengoa 60€-ko otzara bete produktu, bigarrena 40€-ko otzara bete produktu,



hirugarrena 20€-ko otzara bete produktu eta Demikuko auzotar batentzako sari berezia 40€-ko otzara.

Laugarrena: 2025eko urtarrilaren 28an kontu hartzaileak fiskalizazio txostena egin du desadostasun oharrekin.

Argudioak

Lehenengoa: Gastuak, beharrezko atxikipena dauka (RC 2025/000020)

Bigarrena: Oinarri espezifikoak onartzeko ahalmenari dagokionez, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 9.2, eta 17.2 artikuluen eta Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 22.2.e) artikuluekin bat, Osoko Bilkurari dagokio.

Erabakia

Udal Osoko Bilkurak, aho batez, honakoa erabaki du:

BAKARRA: 2025. urteko Demiku auzoko tostada txapelketaren oinarriak onartzea.

11.- KIDE ANITZEKO ORGANOEN IZENDAPENAK ALDATZEA ONARTZEA.

<http://bideoakta.bermeokoudala.eus/bermeo/visor.aspx?id=2&t=3974>

Xedea

Kide anitzeko organoen izendapenak aldatzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2023ko ekainaren 17an, Udal Korporazio barria eratu zan.

Bigarrena: 2024ko apirilaren 24ko 1.886 Alkatetza Dekretu bidez, Tokiko Gobernu Batzarreko kideak, Zinegotzi Delegatuak, Alkateordeak eta Erakundeetako Lehendakari Eragileen izendapena onartu zan.

Hirugarrena: 2024ko azaroaren 28an izandako Udal Osoko Bilkurak Aritz Abaroa Cantuariense zinegotziaren kargu iztearen kontu hartu eban.

Laugarrena: 2025eko urtarrilaren 22an EAJ-PNV udal taldeak eskaria aurkeztu du.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012101500C0P3T6S3G3L8

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 06/02/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/02/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 06/02/2025 18:09:10

DOCUMENTO: 20251183765
Data: 06/02/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Argudioak

Lehenegoa: Abaroa jaunaren kargu iztearen ondorioz, kide anitzeko organoen izendapenak aldatu egin behar dira.

Bigarrena: Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dauzan 7/1985 Legeko 20., 21. eta 23. artikuluetan eta Udalbatzen Antolaketa, Jardunbidea eta Erregimen Juridikoari buruzko Erregelamenduko 41., 46., 52. eta 112. eta hurrengo artikuluetan ezarritakoa.

Erabakia

Udal Osoko Bilkurak, aho batez, honakoa erabaki du:

LEHENENGOA: Bozeramaileen batzarretan EAJ-PNVeko ordezkari IDOIA PLATAS ARENAZA andrea izatea eta bere ordezkoa AINHOA JAYO MADARIAGA andrea.

BIGARRENA: Lurralde informazio batzordean eta Segurtasun mahaian ANDER GARATE ORMAZA jauna izendatzea ordezkari.

HIRUGARRENA: Erakunde eta Kontu batzorde berezian eta Negoziazio mahaian ordezkari kide moduan ANDER GARATE ORMAZA izatea.

LAUGARRENA: Aurrekoa kontuan hartuz Bozeramaileen batzarreko, Lurralde batzordeko, Segurtasun mahaiko, Erakunde eta Kontu batzorde bereziko eta Negoziazio mahaiko kideak modu honetan geldituko lirateke:

Bozeramaileen batzarra:

LEHENDAKARIA: Nadia Nemeh Shomaly (ordezkoa: Zigor Uriondo Arrue)

KIDEAK:

- EH Bildu taldetik:

Victor Uriarte Anasagasti (ordezkoa: Endika Etxeberria Telleria).

- GUZAN taldetik: Xabier Ortuzar Butron (ordezkoa: Miren Karmele Gabantxo Uriagereka).

- EAJ-PNV taldetik: : Idoia Platas Arenaza (ordezkoa Ainhoa Jayo Madargia).

IDAZKARIA: Udal idazkari nagusia edo honek eskuordetutakoa.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012101500C0P3T6S3G3L8

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udal)-IDAZKARI NAGUSIA - 06/02/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/02/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 06/02/2025 18:09:10

DOCUMENTO: 20251183765
Data: 06/02/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E90012101500C0P3T6S3G3L8



Lurralde Informazio Batzordea:**Burua:**

Xabier Ortuzar Butron (GUZAN).

Buruordea:

Miren Karmele Gabantxo Uriagereka (GUZAN).

Kideak:

Zigor Uriondo Arrue (EH Bildu) (Arantza Ormaza Tarantino ordezkoi)

Victor Uriarte Anasagasti (EH Bildu) (Endika Etxebarria Telleria ordezkoi)

Maite Caruezo Ugalde (GUZAN). (Iker Bilbao San Nicolás ordezkoi)

Ainhoa Jaio Madariaga (EAJ-PNV) (Idoia Platas Arenaza ordezkoi)

Ixone Soroa Guenaga (EAJ-PNV) (Kepa Zumeta Garro ordezkoi)

Ander Garate Ormaza (EAJ-PNV) (Jose Luis Arruza Alboniga-Mayor ordezkoi)

Segurtasun Batzordea:

Mahaiburua: Endika Etxebarria Telleria eta bere ordezkoi, Nadia Nemeh Shomaly

Mahaikideak:

- Victor Uriarte Anasagasti eta bere ordezkoi Zigor Uriondo Arrue
- Miren Karmele Gabantxo Uriagereka eta bere ordezkoi Maite Caruezo Ugalde
- Jose Luis Arruza Alboniga-Mayor eta bere ordezkoi Ibon Legarreta Erkiaga
- Ander Garate Ormaza eta bere ordezkoi Ainhoa Jayo Madariaga

Erakunde eta Kontu Batzorde Berezia:**Burua:**

Nadia Nemeh Shomaly (EH Bildu).



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012101500C0P3T6S3G3L8

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 06/02/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/02/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 06/02/2025 18:09:10

DOCUMENTO: 20251183765

Data: 06/02/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia

Buruordea:

Victor Uriarte Anasagasti (EH Bildu).

Kideak:

Endika Etxebarria Telleria (EH Bildu) (Zigor Uriondo Arrue ordezkoi)

Miren Karmele Gabantxo Uriagereka (GUZAN) (Iker Bilbao San Nicolás ordezkoi)

Xabier Ortuzar Butron (GUZAN) (Maite Caruezo Ugalde ordezkoi)

Idoia Platas Arenaza (EAJ-PNV) (Ander Garate Ormaza ordezkoi)

Ibon Legarreta Erkiaga (EAJ-PNV) (Alazne Zumeta Garro ordezkoi)

Ainhoa Jaio Madariaga (EAJ-PNV) (Ixone Soroa Guenaga ordezkoi)

Negoiazio Mahaia:

Mahaiburua: Endika Etxebarria Telleria eta bere ordezkoi, Nadia Nemeh Shomaly

Mahaikideak:

- Victor Uriarte Anasagasti eta bere ordezkoi Zigor Uriondo Arrue
- Miren Karmele Gabantxo Uriagereka eta bere ordezkoi Maite Caruezo Ugalde
- Idoia Platas Arenaza eta bere ordezkoi Ander Garate Ormaza
- Alazne Zumeta Garro eta bere ordezkoi Jose Luis Arruza Alboniga-Mayor

BOSGARRENA: Erabagi honek urtarilaren 30etik aurrera izango dauz eraginak.

SEIGARRENA: Interesdunei erabaki hau jakinaraztea.

ZAZPIGARRENA: Erabaki hau, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

12.- BAKE EPAILEA ETA ORDEZKOA IZENDATZEA ONARTZEA.

<http://bideoakta.bermeokoudala.eus/bermeo/visor.aspx?id=2&t=4062>



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012101500C0P3T6S3G3L8

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 06/02/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/02/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 06/02/2025 18:09:10

DOCUMENTO: 20251183765
Data: 06/02/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Alkateak azaldu du 2023ko azaroaren 28ko Osoko Bilkuran proposatutako bake epaile titularrak uko egin duenez, EAEko Auzitegi Nagusitik izendapen konkretu berria egiteko eskaera egin dutela eta horregatik gaia sartzeara proposatu dela. Esan du informazio batzordeko diktamenik ez duenez, lehenik eta behin, puntu hau gai zerrendan sartzeara berretsi behar dela.

Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 artikulua araberak, aho batez berretsi da gai zerrendan sartzeara.

Xedea

Bake Epailea eta ordezkoa izendatzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: EAEko Auzitegi Nagusiak, 2024ko martxoaren 27an, Bake epaile lege izendatutako persona kargutik kentzearen ebazpena eta, ondorioz bake epaile barria eta ordezkoa izendatzeko eskaria bialdu eban. Hori dala eta, prozesuari hasiera emoteko oinarriak prestatu ziren.

Bigarrena: 2024ko maiatzaren 30eko Osoko Bilkuran oinarriak eta deialdia zabaltzea onartu zen.

Hirugarrena: Deialdia 2024ko ekainaren 13ko BAO on argitaratu zen, eta eskariak aurkezteko epean, ez zen ezelako eskaririk aurkeztu. Hori horrela, 2024ko irailaren 26ko Osoko Bilkuran, prozesua hutsik deklaratzeara eta, onartutako oinarrien arabera deialdi berria egitea erabaki zen.

Laugarrena: Deialdi berria 2024ko urriaren 9ko BAO on argitaratu zen.

Bosgarrena: 2024ko azaroaren 28ko Osoko Bilkuran Bake Epaile lege izendatutako pertsonen proposamena egin izan zen eta hurrenkera zehaztu zen.

Seigarrena: 2025eko urtarrilaren 14an uko egiteko eskaria aurkeztu du Osoko Bilkurak proposatutako lehenengo pertsonak eta 2025eko urtarrilaren 16an ordezkoko lege izendatutako pertsonak Bake Epaile lege izendatzeko eskaria egin du.



Argudioak

Lehenengoa: Botere Judizialeko Lege Organikoko 101. artikulua eta hurrengoek xedatzen dabena jarraitu da.

Bigarrena: Aipatutako Legearen arabera, erabagia hartzea Osoko Bilkureari jagoko eta, eskatzen dan gehiengoa, gehiengo osoa da.

Erabakia

Udal Osoko Bilkurak, aho batez, honakoa erabaki du:

LEHENENGOA: Bake Epaile legez Celia Larrocea Costela izendatzeko proposamena egitea EAEko Auzitegi Nagusiari.

BIGARRENA: Bake Epailearen ordezkotz legez Gorka Arana Abio izendatzeko proposamena egitea EAEko Auzitegi Nagusiari.

HIRUGARRENA: Interesdunei erabagiaren berri ematea.

13.- 2024KO 3. HIRUHILEKO HORNITZAILEEI ORDAINKETEN INGURUKO TXOSTENAREN BERRI EMATEA.

<http://bideoakta.bermeokoudala.eus/bermeo/visor.aspx?id=2&t=4083>

“Xedea

Finantza likidezia sortzea.

Aurrekariak**Bakarra:**

- Abenduaren 22ko Errege Dekretu 1040/2017koa, uztailaren 25eko Errege Dekretua 635/2014.aldatzen duena.

Argudioak**Lehena:**

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012101500COP3T6S3G3L8

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 06/02/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/02/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 06/02/2025 18:09:10

DOCUMENTO: 20251183765
Data: 06/02/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



- 2017ko Errege Dekretuaren mamia hornitzaileen gehieneko ordainketa epea kalkulatzeko metodologiarena da. Aipatzekoa da, ordaintzeko gehieneko epea (60 egun) 2004/03 Legean erregulatu gelditu zena ez duena aldatzen.

Bigarrena:

.- Aldakuntza garrantzitsuenetarikoa hornitzaileen gehieneko ordainketa epean sortu da. Ordainketa egunen edo ordaintzeko gelditzen diren egunen kalkulua erregistro fakturen anotazio egunetik hasita kontatuko da (egun naturalak).

.- Onarpena eman behar denean egindako zerbitzu edo hornikuntzei, kontatzen egunek handik eta gora hasiko dira.

“ Artículo 5:Se entenderá por número de días de pago, los días naturales transcurridos desde:

- a) La fecha de aprobación de las certificaciones de obra hasta la fecha de pago material por parte de la Administración.
- b) La fecha de aprobación de los documentos que acrediten la conformidad con los bienes entregados o servicios prestados, hasta la fecha de pago material por parte de la Administración.
- c) La fecha de entrada de la factura en el registro administrativo, según conste en el registro contable de facturas o sistema equivalente, hasta la fecha de pago material por parte de la Administración, en los supuestos en los que o bien no resulte de aplicación un procedimiento de aceptación o comprobación de los bienes o servicios prestados o bien la factura se reciba con posterioridad a la conformidad.

En los supuestos en los que no haya obligación de disponer de registro contable, se tomará la fecha de recepción de la factura en el correspondiente registro administrativo.”

“El número de días de pago” son los días naturales transcurridos desde la fecha de conformidad de la factura, hasta la fecha de pago material por parte de la Administración. En los supuestos en los que no exista constancia del acto de conformidad, se tomará la fecha de recepción de la factura en registro administrativo o sistema equivalente. No se considerará la factura pagada hasta el abono total de la misma. En el caso de certificaciones de obra, el cómputo se inicia desde la fecha de aprobación”.

Hirugarrena: Hiru hiruhilabetekoetan hirurogei egunetik gora igotzen direnean ordaintzeko epeak Udalkutxako erretentzioaren hasiera espedientea hasiko da BFAtik, eta bera izango da zuzenean ordainduko duena udalaren fakturen zorra.



Laugarrena: Kalkulu berri hori egiten ze epetik gora derrigortzen den, Aldi Baterako Xedapen Bakarrean agertzen da:

“La primera publicación mensual del período medio de pago a proveedores realizada de conformidad con la metodología prevista en la modificación del artículo 5 del Real Decreto 635/2014, de 25 de julio, tendrá lugar en el mes de junio de 2018 referida a los datos del mes de abril de 2018.....”

Kalkulu berri honen derrigortasuna udalarentzat 2018ko bigarren hiruhilabetekoan hasi da.

Bosgarrena: Aurrean esandako guztia kontuan hartuta 2024ko hirugarren hiruhilabeteko ratioak hauek izan dira:

ERAKUNDEA	HIRUHILEKOA	ORDAINDUTAKO ERAGIKETEN RATIOA	EGITEKO DAUDEN ORDAINKETARAKO ERAGIKETEN RATIOA	ERAKUNDE BAKOITZAREN BATEZ BESTEKO ORDAINTZEKO EPEA	HORNITZAILEEI ORDAINTZEKO BATEZ BESTEKO EPE OROKORRA
Udala		11 egun	0 egun	11 egun	
Beruala S.A.	3.goa	15,41 egun	12 egun	15,36 egun	11,53 egun

Seigarrena:

- Udalak derrigortuta dagoz ratio horiei publizitatea ematera:

“Las Entidades Locales publicarán periódicamente, a través de sus portales web, la siguiente información:

- Período medio de pago global a proveedores.*
- Período medio de pago de cada entidad*
- Ratio de operaciones pagadas de cada entidad*
- Ratio de operaciones pendientes de pago de cada entidad*

Publicación trimestral y se publicará la serie histórica anual”

Proposamena:

Goian aipatutako guztia kontuan hartuta honako hau proposatzen dut:

BAKARRA: Osoko Bilkurari informaziorako bidaltzea, eta goian agertzen den taula web orrian argitaratzea.”



14.- 2024KO 3. HIRUHILEKO MOROSITATE DATUEN BERRI EMATEA.

<http://bideoakta.bermeokoudala.eus/bermeo/visor.aspx?id=2&t=4133>

“Gaia

2024ko hirugarren hiruhilekoko txostena, Berankortasun Legean aurreikusita dagoena, Osoko Bilkuran barri emateko.

Eragiketa komertzialetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen ekainaren 12ko 5/2003 Foru Arauaren 4. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako txosten hau ematen dut:

Aurrekariak

Lehenengoa. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 198. artikulua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.

1. Kontratistak eskubidea izango du egindako prestazioagaitik hitzartutako prezioa ordaintzeko, lege honetan eta kontratuan ezarritakoaren arabera. Esparru-akordio batean oinarritutako kontratuen eta kontratazio-sistema dinamiko batetik eratorritako kontratu espezifikoaren kasuan, eskatzaileak ordaindu ahal izango du prezioa.

2. Prezioa osorik edo zati batean ordain daiteke, konturako ordainketen bidez, edo, segidako traktuko kontratuen kasuan, hitzartutako epemugetako bakoitzean ordainduz.

3. Kontratistak, halaber, konturako ordainketak jasotzeko eskubidea izango du, kontratua gauzatzeko prestatze-eragiketen zenbatekoan, baldin eta eragiketa horiek kontratuaren xedearen barruan badaude, kasuan kasuko pleguetan adierazitako baldintzetan, eta ordainketa horiek bermea emanez ziurtatu beharko dira.

4. Obra-ziurtagiriak edo emandako ondasunak edo zerbitzuak kontratuan xedatutakoarekin bat datozela egiaztatzen duten agiriak onartu eta hurrengo hogeita hamar egunen barruan ordaindu beharko du administrazioak prezioa, hargatik eragotzi gabe 210.artikuluko 4.paragrafoan ezarritakoa. Berandutuz gero, berandutze-interesak



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012101500C0P3T6S3G3L8

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 06/02/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/02/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 06/02/2025 18:09:10

DOCUMENTO: 20251183765
Data: 06/02/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E90012101500C0P3T6S3G3L8



eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak ordaindu beharko dizkio kontratistari, epe hori igaro eta hogeita hamar eguneko epean, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako moduan. Interesak sortzeko epea zenbatzen hasteko, kontratistak faktura dagokion administrazio-erregistroan aurkezteko betebeharra bete beharko du, faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzetan, hogeita hamar eguneko epean, salgaiak benetan entregatzen direnetik edo zerbitzua ematen denetik zenbatzen hasita.

210.artikuluko 4.paragrafoan eta 243.artikuluko 1.paragrafoan ezarritakoari kalterik egin gabe, emandako ondasunen edo emandako zerbitzuen obra-ziurtagiriak edo kontratuan xedatutakoarekin bat datozela egiaztatzen duten agiriak onartu beharko ditu administrazioak, ondasunak entregatu edo zerbitzua eman eta hurrengo hogeita hamar eguneko epean.

Nolanahi ere, kontratistak ez badu betetzen faktura dagokion administrazio-erregistroan aurkezteko hogeita hamar eguneko epea, faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera, interesen sortzapena ez da hasiko harik eta faktura behar bezala aurkezten denetik hogeita hamar egun igaro arte, eta Administrazioak ez badu, hala badagokio, adostasuna onartu eta dagokion ordainketa egin.

5. Ordainketak lau hilabete baino gehiago berandutuz gero, kontratistak, hala badagokio, kontratua betetzea eten ahal izango du, eta gorabehera horren berri eman beharko dio Administrazioari, hilabete bat lehenago, etenaldi horretatik erator daitezkeen eskubideak aitor ditzan.

6. Administrazioa sei hilabetetik gora berandutzen bada, kontratistak eskubidea izango du, halaber, kontratua suntsiarazteko eta horren ondorioz sortutako kalteak ordaintzeko.

7. Zerga-arauetan eta Gizarte Segurantzarenean ezarritakoari kalterik egin gabe, kontratua gauzatzeagatik egin beharreko konturako ordainketak honako kasu hauetan bakarrik enbargatu ahal izango dira:



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012101500C0P3T6S3G3L8

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 06/02/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/02/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 06/02/2025 18:09:10

DOCUMENTO: 20251183765
Data: 06/02/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E90012101500C0P3T6S3G3L8



a) Kontratataren langileek kontratua gauzatzean sortutako soldatak eta horien ondoriozko gizarte-kuotak ordaintzeko.

b) Kontratatik azpikontratatistekin eta hornitzaileekin kontratua gauzatzeari buruz hartutako betebeharrak ordaintzeko.

8. Beraz, 5/2013 Foru Araua, ekainaren 12koa, egonkortasunari buruzkoa eta iraunkortasun finantzarioan oinarrituz, Administrazioak, hogeita hamar eguneko epea du, ondasunak entregatu edo zerbitzuak eman eta biharamunetik kontatzen hasita, adostasuna egiaztatzen duten ziurtagiriak edo agiriak onartzeko, eta beste hogeita hamar egun ditu, onarpen-egun horretatik aurrera, prezioa berandutzerik gabe ordaintzeko. Berankortasun-txostenei dagokienez, ordaintzeke dauden batez besteko aldiaren zenbaketaren hasiera, ordaindutako eragiketena zein ordaintzeke daudenena, faktura jasotzen denetik zenbatzen da, oro har.

Hala, berankortasun-txostenei dagokienez, ordaintzeko batez besteko aldia zenbatzen hastea, bai ordaindutako eragiketena, bai ordaintzeke daudenena, berankortasun-araudi aplikagarriarekin bat etorri zenbatzen da.

«Faktura edo justifikazio-agiria administrazio-erregistroan sartzen denetik», ondorioz, egungo araudiaren arabera gehienekoa 60 egun izango lirateke guztira (30 egunetan banakatuta, erregistroan onartzen denetik, eta 30 egunetan, ordaintzeko onartzen edo aitortzen denetik), kasu partikularretan izan ezik, hala nola Obraren Azken Ziurtagirian (3 hilabete onartzeko eta 30 egun hura ordaintzeko) eta kontratuaren likidazioan izan ezik.

Bigarrena. 3. artikulua. 9/2017 Legearen eremu subjektiboa.

1. Lege honen ondorioetarako, honako erakunde hauek hartuko dira sektore publikoaren barruan:

a) Estatuko Administrazio Orokorra, autonomia-erkidegoetako administrazioak, Ceuta eta Melilla hiri autonomoak eta toki-administrazioa osatzen duten erakundeak.

b) Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileak eta zerbitzu erkideak.



c) Erakunde autonomoak, unibertsitate publikoak eta administrazio-agintaritza independenteak.

d) Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean eta toki-araubidearen legerian aipatzen diren berezko nortasun juridikoa duten partzuergoak, bai eta aduana-legeriak araututako partzuergoak ere.

e) Fundazio publikoak. Lege honen ondorioetarako, fundazio publikotzat hartuko dira baldintza hauetakoren bat betetzen dutenak:

1. Hasieran eratzea, sektore publikoko erakunde baten edo batzuen gehiengoaren ekarpenarekin, zuzenean edo zeharka, edo eratu ondoren jasotzea ekarpen hori.
2. Fundazioaren ondarearen %50 baino gehiago sektore publikoko subjektuek modu iraunkorrean emandako edo lagatako ondasunek edo eskubideek osatzea.
3. Patronatuko boto-eskubideen gehiengoa sektore publikoko ordezkariena izatea.

f) Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuak.

Azken batean, eta merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko otsailaren 16ko 2011/7/EB Zuzentarauaren aplikazio-eremu subjektiboarekin bat etorriz, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 3. artikulua aplikazio-eremuan sartzen diren erakundeak dira, eta ondorio guztietarako, legeak botere esleitzaitzat jotzen dituen erakundeak sartzen dira.

